
GIZARTEA

EUSKALTZAINDIA
75. URTE EUSKARAREN ALDE LANEAN
(1919-1994)

Joan zen urteko urriaren Iean eman zitzaien hasiera Oñatiko Unibertsitatean Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko ospakizunei. Gertaera hori zela eta bertan bildu ziren Hegoaldeko Gobernu eta Diputazioetako ordezkariak.

Ongi etorria eta sarrerako hitzak Angel M. Iturbe Oñatiko alkate jaunak irakurri zituen, lehen eta behin Euskaltzaindiak euskarari dagokionean eginiko lana azpimarratuz: «Eta derrigorrez azpimarratu behar, hizkuntzaren batasunean, zainketan eta euskararen berreskurapenean egin duen lan eskertezina, bai eginkizun zientifiko propioaren bidez, bere argirapen ugari bitartez irakaskuntzan edo eta aholku emanez.» (*Euskara*, 1993, 3; 38. liburukia (2. aldia), 423 orr.).

Mintzaldiari amaiera emateko, Euskaltzaindiaren sorrerako une hartan, Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuaren irekiera-saiotan Alfontso XIII. erregeak esandakoak erabili zituen: «Landu ezazue zuen hizkuntza, milurteko euskara beneragarria, Gizadiaren altxorreko oso balioudun bitxia, zuen gurasoengandik eskuratutakoa eta ondorengoei oso-osoa utzi behar diozue-na». (*Ibidem*, 424 orr.).

Jarraian, bidezkoa zenez, Jean Haritsechelhar euskaltzainbu-ruak hitz egin zuen Euskaltzaindiaren sorrerako asmo nagusiak eta beraren 75 urteetako ibilbide luzearen historia laburra es-
kainiz:

«Sartzen ari da Euskaltzaindia bere 75. urtemugan. Egia erran, Oñatiko Biltzar Nagusian, 1918ko irailean izendatu ziren lehenbiziko lau euskaltzainak: Resurrección María Azkue, Arturo Campión, Luis Eleizalde eta Julio Urkixo. Urte baten buruan, 1919.eko irailaren 21ean, Donostiako Foru Aldundian izendatuak izan ziren bertze zortziak eta hamabi horietan 9 Hegoaldekoak ziren, 3 Iparraldekoak. Bildu ziren lehen aldi-
kotz Donostiako Foru Aldundian 1919.eko urriaren 7an.

75 urte iragan dira, ospakizunak hasten dira 1993.eko urriaren 1ean, urte oso bat iraunen dute eta bururatuko dira Leioan 1994.eko urriaren 7an. Duela 25 urte urriaren lehenbiziko egu-
netan Euskaltzaindiak antolatu zuen Arantzuzuko Kongresua euskara batuaren lehenbiziko urratsen hastapenak zirela.

Bi urtemuga horiek ditugu gogoan: Euskaltzaindiaren sortze-arena, euskara batuaren sorrerarena. Bere bizian Euskaltzain-
diak eman dituen urratsetan horiek dira bi premiazkoenak eta euskara batuaren bizian ikus dezagun zer egin den orain arti-
no eta zeri buruz goazen.

Arantzazun eztabaidak izan ziren hiru egunez eta gero Eus-
kaltzaindiak egin zituen proposamenak. Hamar urteren buruan Bergaran egin zelarik euskara batuari buruzko bertze Kongre-
sua argi eta garbi zegoen euskaltzale gehienek, idazle, irakasle eta abar onartu zituztela Euskaltzaindiak eginikako proposa-
menak, ortografiaz, deklinabideaz, erakusleez edo aditz la-
guntzaileez. Orduz gero bidea irekia zen. 1968tik, eta 1978 ar-
te eginikako urratsa, garranzi handiko urratsa izan zen.

Entzuten da noizbehinka, hemen edo han, hainbertze lan eginik 70. hamarkadan, eztitu duela urratsa Euskaltzaindiak eta, diote batzuk, lokartu dela. Nik erran nezake ez dela egia.

Alabaina epe bat beharrezkoa zen ikusteko nola hartuak ziren Bergarako Kongresuaren ondotikako erabakiak. Argi eta garbi dago euskara batuak edo hobeki erran euskara baturantzeko bidea segitua dela. Aski da ikustea urtero argitaratzen diren liburuetan, hala nola egunkari, astekari, aldizkarietan edo euskal administrazioek bai Komunitate Autonomokoak, bai Nafarroakoak beren agerkarietan bide beretik doazela. Hogeita bortz urteren buruan euskara batuak egin du bere ziloa. Nehork ez dezake hori uka.

Anartean zer egin du Euskaltzaindiak? Ez da, segurki, lo egon. 1979an Foruan eta 1981ean Loiolan, bere barne-jardunaldietan sortu zituen bortz batzorde nagusi: Hiztegia, Gramatika, Dialektologia, Onomastika, Literatura. Batzorde bakoitza lan luze eta sakonetan sartu da, Euskaltzaindiaren xedek betetz.

Hor daukagu *Orotariko Euskal Hiztegia* 1984ean lanean hasia, seigarren liburukia joan den uztailan agertu duena. Hor ere LEF (Lexiko erizpideen finkapena) azpibatzerdea hitz elkarteten proposamenak eginik txosten handi eta aberats batean, *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* deritzana, bospasei urtetako lanaren fruitua.

Gramatika batzordeak azken hamar urte hauetan eskaini dizkigu sei liburuki eder: *Lehen urratsak I* (Perpau bakunaz), *Lehen urratsak II* (Aditzaz), *Lehen urratsak III* (Lokailuez) *Euskal Gramatika laburra* eta segitzen du bere lana, ixilean baina fermuki joskerari buruz.

Hizkuntza Atlasak bortz urtez bururatu ditu inkestak Iparraldeko eta Hegoaldeko 145 tokitan, 2.800 galdera eginez toki bakoitzean. Orain datu horiek informatizatzen dituzte talde horretako langileek, paregabeko altxorra, euskara mintzatuaren altxorra bereganatu dutelarik, fonoteka baten mamia, ahantzi gabe Bilbon egindako Dialektologia Kongresua 1991an.

Onomastika batzordeak lau biltzar antolatu ditu, Gasteizen, Urduñan, Lizarran eta igaz, Nevadako Unibertsitatean. Bi go-

bernuen aholkulari izanez Euskaltzaindia, agertu dira Komunitate Autonomoko eta Nafarroako herri-izenak, Iparraldekoak ere, hots, Euskal Herri guzikoak. Leku-izen, deitura, ponte-izenak, azterketa sakonak egin ditu eta sartu da orain exonomastikan sortu duelarik, bide nabar, liburu sorta bat *Onomasticon Vasconiae* deritzana.

Literatura batzordeak badu zer eginik. Aipa ditzagun bakarririk azken ekitaldiak: Herri-Literaturari buruzko II. jardunaldiak: Herri-narratibaz eta Oihenarti buruzko Kongresua, hau Iparraldean.

Hauxe da azken hamar urteotako uzta. Ez da hain txarra. Horrekin betetzen ditu orain artino bete ez diren Euskaltzaindiaren xedeak, xede nagusiak direla arautegiko lehen artikuluan.

- a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangitzarako argibideak eta arauak ematea.
- c) Hiztegia biltzea.
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea». (Ibidem, 425-426 orr.)

Euskaltzaindiak, baina ezin du lehenera begira gozo mamitan geldirik egon. Etorkizuna du aurrez aurre, euskarak gizarte modernora egokitzeke hainbat arazo bizi-bizirik dituela. Hori zela eta egindako lana aztertu eta etorkizunerako bide berriak urratseko asmotan urte osoan zehar hainbat jardunaldi prestatuko zituela iragarri zuen Jean Haritsehellar jaunak, jardunaldi guzti horien gailurreko egintza nagusia aurtengo urrian Leioako Unbiertsitatean burutzeke Kongresua izango zela esanez. Honako hauetan laburbildu zituen urtean zehar egiteko ziren egintzak:

«Urte oso bat iraganen du Euskaltzaindiak jardunaldiak antolatuz, ikerketak eginez, urte oso bat, 1993.eko urriaren 1ean hasiko dena eta 1994.eko 7an bururatuko dena Kongresu haundi batean. Hain zuzen Kongresu hori egingen da Leioan,

Euskal Herriko Unibertsitateko gela nagusian 1994.eko urriaren 3tik 7ra asteleheneetik ortziratera arrats arte.

Biltzar edo Kongresu hori irekia izanen da euskaltzain, urgazle guzientzat eta euskara baliatzen duten taldeen ordezkarienez: argitaletxeak, unibertsitateko irakasleak, hezkuntzako irakasleak, komunikabideak, idazleak, itzultzaileak, administrazioan daudenak... e.a. Dei zabala egin du Euskaltzaindiak, Erakunde Publikoa izanez bertzeen iritziak nahi baititu jakin, euskarak batasunerako bidean gehiengoaren onespina behar baitu.

Biltzarrean proposamenak entzunen eta eztabaidatuko dira, baina proposamen horiek Euskaltzaindiak berak gauzatuko ditu, erabakiak hartuz dagokion unean, biltzarra bururatu ondoren, Arantzazun eta Bergaran egin zuen bezala.

Badago lan urte osoko lana, urritik urrira, gogoratzu lehenbiziko lau euskaltzainak izendatuak izan zirela 1918ko irailean lehenbiziko euskal estudioen Kongresuan eta Euskaltzaindia bere osotasunean bildu zela lehen aldikotz Donostiako Foru Aldundian 1919.eko urriaren 7an, kontuan hartuz ere Arantzazuko Kongresua bildu zela 1968.eko urriaren 3tik 5era.

75. urtemuga, 25. urtemuga, hau Euskaltzaindiaren urrezko ezteien kariatara. Orduan eman zen lehenbiziko urratsa. 25 urteren buruan euskara baturantzeko bidean urrats bat gehiago. (Ibidem, 428).

Euskaltzaindiak ez duela hitzik jan aitortu beharra dugu. Urte osoan zehar hainbat eta hainbat jardunaldi burutu ondoren, oihartzun handiz burutu baitu oraintsu Leioako Kongresua. Jenderik ugari eta era guztietako bildu izan da bertan. Matrikulazio datuen arabera, jatorria, sexua, adina eta ogibidea kontutan izanik honako datuok eskaini zizkigun Euskaltzaindiko idazkaritzak zenbakitan:

JATORRIA: Arabakoak, 30 (%8,4); Bizkaikoak, 151 (%42,6); Gipuzkoakoak, 141 (%39,8); Iparraldekoak, 10 (%2,8); eta Nafarroakoak, 22 (%6,2).

SEXUA: Gizonezkoak, 211 (%60) eta emakumezkoak, 143 (%40)

ADINA: 20-25 urte artekoak, 14; 16-30 urte artekoak, 70 (%20); 31-40 urte artekoak, 152 (%43); 41-50 urte artekoak, 69 (%20); 51-60 urte artekoak, 25; 61-70 urte artekoak, 15; 71-80 urte artekoak 6; eta >81 urteko bat. Daturik gabeko bi. Gazteenak 20 urte izan zituen eta zaharrenak 83 urte. Beraz, adin talde nagusia, 26-50 urte artekoa, 291 (%83).

OGIBIDEA: Euskara irakasleak (euskaltegietakoak), 77 (%21,75); Unibertsitateko irakasleak, 57 (%16,10); beste maila batzutako irakasleak, 56 (%15,81); E.A.E.ko administrazio autonomokoak 25 (%7,06); Udal administrazio langileak, 24 (%6,77); Euskaltzaindikoak, 22 (%6,21); Itzultzaileak, 15 (%4,23); Euskalgintzan diharduten elkarte eta enpresetakoak, 14 (%3,95); Ikasleak, 11 (%3,10); Komunikabideetako hizkuntza arduradunak, 11 (%3,10); Administrazio foralekoak, 10 (%2,8); Nafarroako administrazioakoak, 9 (%2,54); langabetuak, 7 (%1,97); erretiratuak, 4 (%1,12); Politikariak, 3 (%0,84) eta beste ogibide batzutakoak, 9 (%2,54)

Kongresu horretan parte hartzeko aukera izan genuenok, txosten egileek beren azalpenak eman ondoren, eztabaida luze eta biziak jarraitzeko abagunea izan genuen eta, baita, ordutegiak utzitako astialdi laburren mugeten geure iradokizunak eta oharrak egiteko aukera ere. Komunikabideetan ere egunero agertu izan ziren bertako gaien berriak zein partehartzaileei eginiko elkarrizketak. Orokorrean zehazkiro bete zela prestatutako egitaraua aitortu behar.

Argi ageri da, Euskaltzaindia jo eta ke ari dela, bere anagramako *«Ekin eta Jarrai»* esakuna egia egin nahieran. Bazterretan muturreko irizpiderik baldin bada ere, euskalkien artean oreka lortuz, euskararen batasunari dagokionean lehenago burdibidea zena errepide edo kamino nagusi egiteko garaia heldu zaigula uste dut.

Aspergarria litzateke, hemen Leioako egun horietan eztabar-
datu ziren txosten guztien berri ematea. Handi-handika esan-
da, Euskaltzaindiko batzorde bakoitzak azken hamar urteotan
hainbat eta hainbat biltzar eta jardunaldi egin ondoren lortuta-
ko emaitzen berri eman zuen, Euskaltzaindiak orain arte, az-
ken urte hauetan «gomendio-erabaki» gisa argitara emaniko
txosten guztiak jorratuz.

Hasiera batetan Euskaltzaindiaren izenean, zeinbait euskal-
tzain «ex cathedra» hitz egiten hasi baziren ere, gero beste ba-
tzuren jokaera zabalagoak zenbait biltzarkideen artean sortuta-
ko urduritasuna edo egonezina baketu eta elkarrizketak aska-
tasun eta begirune handiko giroan burutzea ekarri zuen.

Hala ere, Leioako jardunaldetan, hizkuntz alorreko azterketa
linguistiko hutsak gaindituak egin zirela uste dut. Euskara ba-
turako bideak jorratzean euskalki batzuk baztertuak izan dire-
lako edo kezka larria nabaritu zen euskararen iraupenari dago-
kionean, eta zuhur jokatu ezik euskara batu edo estandarraren
eta herriko euskararen artean sor daitekeen etenduraren arris-
kua gogoratu.

Nire uste apalean, euskararen iraupen arazo larri honen ir-
tenbidea ez dugu hemengoari errua leporatzean edo hangoa
goraipatzean edo eta urliaren bideari itsu-mitsuan jarraitzean,
bizitzako beste alor ugarian bezala zentzunez aritzean baino.

Zenbait izlariren ahotik lehenari buruzko aipamen gehiegi
entzun genuen, oraina zertxobait alde batera utziz edo. Hala-
koetan sarri gertatu izan den bezala, batzuk etorkizun larriari
aurre egin nahiean arinago ibili nahi lukete, beste batzuk,
agian, iraganeko edertasunek liluraturik lehenari gehiegi atxe-
kiturik bizitzak eta historiak dakarten bilakaera biziari langak
jarri eta astiroago ibili beharra aldarrikatzen duten bitartean. Ez
da, jakina, erraza izango oreka lortzea!

Honetaz ondo argi diosku Xabier Kintanak «*Euskaltzaindia-
ren Leioako Biltzarraren ondoan*» lanean: «Hutsune larriren

batzuk ere izan dira, ene ustez: Baionan, 1964ean batasunaren lehen urratsetan aritu zen talderen bat alde batera uztea, kasu, gizalegez ez da oso dotorea izan, are gutxiago euskal munduan orain arte sekula santan agertu ez diren azterlari urrun eta «aseptiko» batzuei halako partaidetza eman zaienean. Bestalde, behi lodien garaiko azken orduko euskaltzale amorratuek Franco faraoi genuenean lan nekeza egindakakoen emaitzak ahaztu dituztelako kexa mingotsa ere aditu dugu bazterretan. Jose Ramon Etxebarriak, Mitxelenaz gainera, batasuna finkatzen eta hedatzen Gabriel Arestik eta Imanol Berriatuak Bizkaiko batasun-eskolaren gidariak, izandako garrantzi erabat ahantzia gogoratu behar ukan zigun. Eta osotzeko zauririk txarrenak, historia lekuko, arrazoiak gora behera, mespreziozkoak izaten dira. (Egunkaria, 1994-XII-16, 4 orr.)

Euskara batua hasiera batetan euskara idatzirako egina izan zela eta zenbaitek gaur egungo egoera berriari begiratzeko begiak itxita dituztela ere agertu zen, nonbait. Hainbat ez dira konturatzen, aurrerantzean, euskalkiak asko edo gutxi ezagutzera helduko badira ere, euskara ikasten duten erdeldunen gehienentzat euskara batua izango dela beren euskara bakarra. Horrek fonetika eta lantzea eskatzen du, behingoz ahozkeraren egokirako bideak aztertu eta proposatu. Alor hau bigarren maila batetan utzia izan dela dirudi. Honetaz zera diosku Xabier Kintanak aipatutako lanean: «Fonetika, ordea, bazterrago gelditu dela dirudi, eta sinesgaitza bada ere, gure hizkuntza aspaldiko 14 urteotan ofiziala izan arren, oraindik ez diegu irakasle, irratilari eta telebista-aurkezleei esan *jasan, jauna, iluna, oiloa, mina, erlijioa* edo *geologia* nola ebaki behar dituzten, horrek ikasle-entzuleengan sorterazten duen izugarritzko nahaste eta anabasa gora behera. Eta bere hizkuntza nazional eredua oraindik «ikasten» diharduen herri honetan puntu orrek berebiziko garrantzia eta presu du» (Ibidem).

Euskaltzaindiak, aitortu egin behar, hainbat lan burutu izan ditu bere batzordeen bidez azken urte hauetan. Heldu da, ba-

da, erabaki nagusi batzuk, bederen, hartzeko unea. Euskarari gizarteko bide guztiak, eguneroko bizitzan, alor guztietan ireki nahiean dihartutenek ezin dute, orain gertatu ohi den bezala, gaur aurrera eta bihar atzera ibili edo eta zer egin ezean oihan zabal ilunean galduta aritu.

Administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan euskarari ateak irekizeak hizkuntza alor guzti horietako eskaizuneei erantzun ahal izateko egokitzea eskatzen du. Behar bada, euskal munduan dihardugun guztiok, iritziak iritzi, gure arteko hizki-mizkiak aldendu eta apaltasun gehiago eta lankidetzat handiagoa dugula jokatu beharra dugu.

Hizkuntz alorrean ezer guxi lortuko dugu, bestalde, beti oso arriskutsua izan ohi den indarrezko ezarketa bidez, zenbaiten ahoak isilu eta lumak geldiaraztea ez bada. Eta Euskal Herriak handikoen eta hemendikoen, guztion *premina* larri du. Kontua ez dugu, bada, norik duen arrazoi handiagoa erabakitzea, batasunera hurbiltzeko, egin beharreko aukerak ahalik eta egokien ematea baino.

Euskaltzaindiak eredu eta gidari izan beharko luke honetan. Leioako bileran batzuk larraztasun gehiegi erabili zuten jendartetik eginiko kritika batzuei erantzuterakoan. Euskara lantzen hainbeste urtetan aritutako zenbaitek begirune gehixeago mezezi zuela uste dut. Euskaltzaindiak bada, ahalegin berezia egin beharko luke euskal munduan gogotsu lanean ari diren guztiengana hurbiltzen, harreman bide zabalak sortuz besteen lanetik ikasteko zein eginiko ikerketa zehatzen berri emateko. Egin-eginean ere, hitzez ez ezik egiatan euskararen onerako elkar lanean aritzeko.

Eta, horretarako, ez da nahikoa jendeari hurbiltzeko dei egitea. Partaidetza bideratzeko urratsak ere eman behar dira. Agian lehendik urrutiratutako taldeekin harreman zabaletan arituz. Honetaz, behar bada, Jose Manuel Odriozola jaunak **Leioako Biltzarra** lanean (Egin, 1994-X-31) egiten duenaren antzerako gogoeta ere egin beharko genuke guztiok. Bertan soziolinguistika-

ren alorrek jorratu beharra aldarrikatzen du, euskaldun direnei iraupenerako bide errazagoak ziurtatu ahal izateko. Beraren lanean dioenarekin guztiz bat ez banator ere (esaterako, bizkaieraren alde aldarrika dihardugunoi jaurtikitzen dizkigun eztenkadetan), hausnarketa bide izan daitekeela uste dut.

Pierres Xarritton euskaltzain jaunak ere, argi ikusten du, nonbait, euskal munduan lanean ari garen guztion arteko lan-kidetza estua bultzatzea XIII. Biltzarraren ondotik lanean honako hau dioskunean: «Orain Euskaltzaindik bazterretik etorri oharrek adierazi dioten bezala eta bere agerian agertu duen xedearen arabera «euskalkick eskaintzen duten aberastasun oparoa» kontutan hartzen badu, eta beraz Ziberoa edo Ahezkoa xokotik Bizkaia erdiraino euskalgintzan diharduten ikerle guziak biltzen baditu eta gero Atlasaren, Hiztegiaren eta Lexikoaren altxorak ordenatzen ari zaizkigun ordenagailu erraldoiak uztartzen, uste dut XXI. mendeko euskaldunek izanen dutela elkar ulertzeko lanabes, ez nahikoa, baina baitezpada-koa: euskara batua» (Egunkaria, 1994-X-16, 4. orr.)

Leioako Kongresua bukatu ondoren, Euskaltzaindiak hizkuntzari zuzen-zuzenean dagozkion erabakiak hartzen diharduen artean, ez legoke bat ere gaizki «Jagon Sailak» edo beste batzorderen batek, irekitasun handiz, euskararen alde diharduten taldeekin harreman estuagoak burutzen hastea, euskararen geroa ez baita hizkuntzaren egokitze prozesu hutsetan jokatzen, herriaren gogoetan eta herri horretan sortutako era ezberdinetako mugimenduetan baizik. Horrelako zerbait agertzen dizkigute bai udal euskaldunek nahiz zenbait udaletan martxan jarritako euskararen aldeko ekimenek ere.

Azkenik, zirriborro antzerako berri emate honi amaiera emateko Leioako Kongresuaren bukaeran Euskaltzaindiak ageriko eginiko txostena eskaintzen dizuet.

«EUSKALTZAINDIAREN LEIOAKO ADIERAZPENA

Euskaltzaindiak, Leioan bildurik, 1994ko urriaren 3tik 7ra egindako XIII. Biltzarraren ondoren,

- eskerrak eman nahi dizkie Biltzar honetan parte hartu duten hizlari, txostengile eta biltzarkide guztiei, aitortuz eskerga izan dela batzordekideen lana, eta batez ere batzordeetako idazkariena;
- esker bereziak eman nahi dizkio Euskal Herriko Unibertsitateari, Biltzarra behar bezala egiteko erraztasun guztiak eman dituelako. Baita komunikabideetako kazetariari ere, hauei esker baitira orain Euskaltzaindiaren ekintzak ezagunago;

Eta honako hau adierazten du:

1) Biltzar hau beste urrats bat izan da batasunaren bidean, aurkeztu diren lanen mailagatik eta biltzarkideen artean sorturiko eztabaidengatik. Agerian utzi du, halaber, Arantzazuko eta Bergarako biltzarretan eta ondorengo urteetan egin lana zein emankor, mamitsu eta garrantzitsua izan den. Pozgarria da, orobat, horrenbeste jende eta hain toki desberdinetakoak, bildu izana.

2) Euskaltzaindiak erabakiak hartuko ditu hurrengo hilabeteetan hemen eztabaidatu diren gaiak buruz, bereziki gramatikari eta exonomastikari dagozkionei buruz. Bestalde, ahaleginak egingo ditu hiztegi batuari eta ahoskerari dagozkienak ere, egin arau, ahalik eta lasterren argitaratzeko.

3) Euskaltzaindiak oso gogoan izango du, orain arte bezala, euskalkiek eskaintzen duten aberastasun oparoa, hiztegiak eta esaeretakoa, batez ere. Euskal Herri osoari, eta ez zati bati bakarrik, dagozkion hizkera batua bultzatu nahi du, iraganetik belaunez belaun datorren hizkuntza ondarea zainduz eta premia berrietara egokituz. Arreta berezia jarriko du Espainiaren eta Frantziaren arteko estatu mugak sortzen dituen hizkuntza bereizketak gainditzen.

4) Euskaltzaindiak argi utzi nahi du euskal gizarteak eskatzen dionari erantzungo diola, beti ere hartarako behar dituen baliabideak eskuratuko dituen neurrian.

Patxi Uribarren